



SAILAREKIN BILERA 2025eko urtarrilaren 26an

Gaur, astelehena, sailarekin bildu gara, I. FASEKO KARRERAKO FUNTZIONARIOAK EGOKITZEKO PROZESUA AMAITZEAREKIN ETA AKOPLAMENDU HORI AMAITUTAKOAN BITARTEKO LANGILEAK BIRKOKATZEKO IRIZPIDEEKIN lotutako gaiak aztertzeko.

Honekin batera doakizue administrazioak aurkeztutako DOKUMENTUA, eta dokumentu honi buruzko gaiak argituko dizkizuegu:

1.- FUNTZIONARIO TITULARRAK ETA BITARTEKO FUNTZIONARIOAK EGOKITZEKO PROZESUA

LANPOSTUAZ JABETZEA: URTARRILAREN 30EAN jabetuko dira I. FASEKO KARRERAKO FUNTZIONARIOAK. Langile titularrak (motxila) ordezkutzen ari diren bitartekoak ere lanpostuaz jabetuko dira, baldin eta baldintzak betetzen badituzte, aldi baterako ezintasun-egoeran ez badaude eta lanposturako beharrezkoa den profila badute.

Hori elektronikoki egingo da, eta, aurretik, pertsona bakoitzari JABETZA HARTZEA bidaliko zaio, bakoitzak sina dezan eta bueltan bidal dezan. Bitarteko langileentzat aurrez aurrekoa izango da lurraldeetako EATetan.

EZARPENA: Lanpostuaz jabetzen den egunean, langileak oraingo lanpostuan jarraituko du eta aldaketa ezarpenarekin batera egingo da. EZARPENA IZANGO DA:

- **OTSAILAK 16:**

GERNIKA, GETXO eta AMURRIO

- **OTSAILAK 23:**

IRUN, BERGARA, DURANGO eta TOLOSA

- **MARTXOAK 2**

AZPEITIA eta BALMASEDA

Aipatzekoa da, halaber, 30. egunetik aurrera ordainsariari eta kotizazioari eragin dakiekeela, lanpostuaz jabetzearen ondorioz langilea lanpostuz aldatzen bada. Argi utzi behar da lanpostuaz jabetzeak ez diela eragingo orain arte sortutako OPORREI eta BAIMEN-EGUNEI. Izan ere, kargu-uztearen eta lanpostuaz jabetzearen artean ez dago egun erdirik; hala bada, berdin gertatzen da barneko langile eta titular guztientzat.

2.- BITARTEKO LANGILEAK BIRKOKATZEA, AKOPLAMENDUA AMAITU ONDOREN.

I. faseko barruti judizialetan behin betiko destinoa duten karrerako funtzionarioak egokitze prozesua amaitu ondoren, bitarteko langileek esleitu ez diren plazak aukeratuko dituzte.

- IT EGOERA: Lanpostuaz jabetu ahal izateko bitarteko langileak EZIN IZANGO DIRA ALDI BATERAKO EZINTASUN-EGOERAN egon lanpostuaz jabetzeko ezartzen den egunean.

- LANPOSTUAZ JABETZEA: bitarteko langile guztiei bidaliko zaie, sina dezaten, EATetako jabetze-agiria; EZ dute sinatu beharko aldi baterako ezintasun-egoeran daudenek.

Lanpostuaz jabetzeko agiriarekin batera, erantzukizunpeko adierazpenaren eredu bat bidaliko da. Bertan, lanpostuaz jabetu behar duten langileek adierazi beharko dute ez daudela aldi baterako ezintasun-egoeran.

- **PLAZAK ETA BITARTEKOAK ARGITARATZEA:**

Urtarrilaren 29an argitaratuko dira:

- o BETE BEHARREKO LANPOSTUEN ZERRENDAA

- o PARTE HAR DEZAKETEN BITARTEKOEN ZERRENDAA.

Zerrenda horretan urtarrilaren 29an kontratatutako bitarteko langileak bakarrik agertuko dira. Okerren bat badago zuzenduko dute.

Norbait kontratatzen bada urtarrilaren 30etik aurrera, ezingo du parte hartu. Urtarrilaren 29ra arte (egun hori barne) kontratatutako bitarteko langileek, data horren ondoren baja hartzen badute, prozesu horretan parte hartzen jarraituko dute. Hala ere, EZARPENAREN egunean alta emanda egon beharko du.

GAINERAKO KASUAK SAILAK BIDALI DIGUN PDF ERANTSIAN DAUDE.

DUDAREN BAT BALDIN BADUZUE DEITU ETA LAGUNDUKO DIZUEGU.